fagorederlangroup

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN POLITIKA

HUMANITY AT WORK

MONDRAGON

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN POLITIKA

1. Helburua

Laneko Osasun eta Segurtasun politikak Fagor Ederlan Taldea lan-praktika arduratsuak eta lan-baldintza seguru eta osasungarriak hartzera gidatzen duen esparru bat osatzen du. Fagor Ederlan Taldearen Estrategian eta Kudeaketan bertan txertatutako helburu, estrategia eta lan-ildo espezifikoen bidez gauzatzen diren konpromisoak ezarri eta jarduera printzipioak zehazten ditu.

2. Aplikazio eremua

Laneko Segurtasun eta Osasuneko politika hau Fagor Ederlan Taldeko jarduera, negozio eta langile guztiei aplikatu beharrekoa da, balio-katearekin eta beste interes-talde batzuekin dituzten harremanak barne.

3. Konpromisoak

Fagor Ederlan Taldeak prozesu eta lantoki seguru eta osasungarriak izateko konpromisoa hartzen du, taldeko pertsona guztientzat eta gure instalazioetan zerbitzuak ematen dituzten kanpoko enpresetako langileentzat. Laneko segurtasun eta osasunarekin inplikatuta dauden pertsonak garatuko ditu, "Zero Istripu" helburutzat hartuta. Horretarako, konpromiso hauek hartzen ditu:

- ISO 45001 arauan oinarritutako Kudeaketa Sistema bat izatea, Laneko Segurtasuna eta Osasuna babesteko eta hobetzeko funtsezko elementu gisa. Sistema horrek, herrialde bakoitzean indarrean dagoen legedia eta beste betekizun batzuk betetzeaz gain, langileen lan baldintzak etengabe hobetzea eta haien osasuna sustatzea nahiz laneko indarkeriaren prebentzioa eta antolaketa-ingurune egokia ahalbidetuko du, dauden lan arriskuen (segurtasunekoak, higienikoak, ergonomikoak eta izaera psikosozialekoak) aldizkako ebaluazioak eginez, larrialdiei aurre egiteko jarduketak ezarriz eta istripuak eta gertakariak modu eraginkorrean kudeatuz.

- Arriskubideak ezabatzea eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko arriskuak murriztea, eta, horretarako, Plan Estrategikoetan eta Gestio Planetan horretara bideratutako baliabideak sartuko dira, eta makina seguruak, postu ergonomikoak, Lan-kargaren banaketa egokia, babes ekipamendu kolektiboak eta indibidualak, gai kimikoak segurtasunez manipulatzeko bitartekoak eta suteetatik babesteko sistemak jarriko dira.

- Lan Arriskuen Prebentzioaren kudeaketa erakundearen maila guztietan sartzea, kudeaketa horrek dakartzan ardurak definituta eta ardura horiek arrakastaz beteko direla bermatzeko behar diren bitartekoak eta trebakuntza eskainita.

- Prebentzio kultura bat garatzea, taldeko pertsona guztiek Laneko Segurtasun eta Osasunarekin modu autonomoan eta proaktiboan konpromisoa har dezaten.

- Ezarritako helburuen eta edukitako lorpenen berri ematea langileei, langileak partaide bihurtzea eta haiei kontsulta egitea.

- Prestakuntzarako programak eta parte hartzeko kanalak ezartzea, FAGOR EDERLAN TALDEko pertsona guztiek Politika, Helburuak eta Kudeaketa Sistema betetzeko aurreikusi diren jarduerak gauzatzeko konpromisoa hartu dezaten.

Copyright ©, Fagor Ederlan, S.Coop. - Copyright, Confidential and proprietary, all rights reserved - property of Fagor Ederlan, S.Coop .This information carrier and the information it contains are the property of Fagor Ederlan, S.Coop. Any reproduction, disclosure or use of either is prohibited without the prior written consent of Fagor Ederlan, S.Coop. The same provisions apply to any oral communications related thereto accordingly.

4. Aprobación y seguimiento

- **Onarpena**: Politika hau Fagor Ederlan Taldeko Zuzendaritza Kontseiluak landu eta onartu du, bera baita politika aplikatzearen arduraduna, eta horrela goi zuzendaritzak Laneko Segurtasun eta Osasun Estrategiarekin duen konpromisoa erakusten da eta enpresaren estrategia globalean integratzen dela ziurtatzen da.

- **Jarraipena**: Politika honen inplementazioa gainbegiratzeko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzorde zentral bat dago, zuzendaritzako kideek eta langileen ordezkariek osatua, zeinak Fagor Ederlan Taldeko Zuzendaritza Kontseilua zuzenean informatzen duen.

- **Berrikuspena**: Politika hau periodikoki berrikusi egingo da, eta hala badagokio eguneratu, Fagor Ederlan Taldeak esparru honetan dituen asmoak erakutsi nahian eta legeetako aldaketak eta interes taldeen iruzkinak eta iradokizunak ere kontuan hartuta.

Data	**Onarpena**
08/04/2025	Fagor Ederlan Taldeko Zuzendaritza Kontseilua

Copyright ©, Fagor Ederlan, S.Coop. - Copyright, Confidential and proprietary, all rights reserved - property of Fagor Ederlan, S.Coop .This information carrier and the information it contains are the property of Fagor Ederlan, S.Coop. Any reproduction, disclosure or use of either is prohibited without the prior written consent of Fagor Ederlan, S.Coop. The same provisions apply to any oral communications related thereto accordingly.